



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

## **Bizkaiko Batzar Nagusiek Foru Arau proiektu guztiak herritarren partaidetzara zabalduko ditue lehen aldiz**

Batzar Nagusiek beste pausu bat emon dabe herritarrengana zabaltzeko. Ehun urte baino gehiago dituan erakundearen historian lehen aldiz, bizkaitarrek, Bizkaiko Batzarretan izapidetzen diran Foru Arau proiektuen aurrean alegazioak edo proposamenak aurkezteko modu erraza eta sistematizaua izango dabe. Bizkaiko Batzarrek “Herritarren Ataria” aktibau dabe gaur, herritarren iradokizunen sarrerako atea, Foru Arau proiektuen bultzatzaileei, hau da, batzarretako taldeei, bideratzeko, hareek zuzenketa-eskeetan sartzeko aukera izan daien.

Gura dabenak, iragarrita dagoan Gardentasunari buruzko Foru Arau proiektuaren edo, aurreikuspenak beteten badira Batzarretako izapideak urrian hasiko dituen 2016. urterako Bizkaiko Aurrekontu Orokorren ganeko ideak azaldu ahal izango ditue. Pausu horrek goitik behera aldatzen dau herritarren eta erakunde legegileetako baten arteko harremana, herritarri aukerea emoten jakolako gizartean eragin handia daukien Foru Arauak egiteko orduan bere ideak zuzenean aurkezteko, Aurrekontuakaz gertatzen dan moduan.

Bizkaiko Batzarrek, politikea herritarrei hurbiltzeko ahaleginean, joan dan martian, aurreko agintaldiko azkenengo osoko bilkuran aho batez onartu zan bere Arautegi barrian, bakarka edo taldeka Foru Arauetan aldaketak proponiduteko aukerea emongo dauen ibilpide orria ezarri eben. Ekimen horrek gardentasunerako eta partaidetzarako bidea marketan dau Bizkaiko Batzarretan, herritarrek eurentzat interesgarri diran arazoentzako erantzuna jaso daien agintari publikoen aldetik.

Herritarrek Aurrekontuen proiektuan izan daikien partaidetzea 115. artikulua araupetuten dau. Foru Arau proiektua onartzean, Mahaiak “Batzarretako webgunean iragarki bat jartea erabagi eta proiektu hori herritarren esku jarriko dau”. Batzarrek “10 eguneko epea zabalduko dabe, Aldizkari Ofizialean argitaratzen danetik idazkaritza nagusian alegazioak aurkezteko, norbanakoek euren aldetik edo alkatereen edo erakundeen bitartez”. Idazkaritza nagusiak aton bideratuko deutsez aurkeztutako alegazioak batzarretako taldeei.

Partaidetza hori 137. artikuluan be agertzen da. Oraingo honetan, aurrekontuen izapidetzerako aipamen berezia egiten da. Kontu publikoak azterketa fasera ailegetan diranean, “herritarrek, alkatereek eta gizarteko ganerako erakundeek” 10 eguneko epea izango dabe alegazioak eta proposamenak aurkezteko, eta horretarako formulario eredu bat prestauko da. Eredu hori webgune instituzionalean ([jggbizkaia.eus](http://jggbizkaia.eus)) eta paperean, Batzar Nagusien administrazio egoitzan (Hurtado de Amezaga kalea, 6) dago gaurtik aurrera.

Datuak emon eta gero (izena, helbidea, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa), erabiltzaileak, une horretan Batzarretan izapidetzen ari dan Foru Arau proiektuaren ganean aurkeztu gura dituan proposamen guztiak aurkeztu ahal izango ditu. Plataforma horren helburua herritarren eretxiak Bizkaiko ordezkariari heldu arazotea da, Arauen behin betiko idazketetan sartu ahal izateko. Batzarretako idazkaritzak batzarretako taldeei bideratuko deutsez alegazioak eta proposamenak, behar dan moduan sailkatuta, eta horren barri emongo deutso Mahaiari.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **Las Juntas Generales de Bizkaia abren por primera vez a la participación ciudadana todos los proyectos de Norma Foral**

Bilbao, a 28 de septiembre de 2015

Las Juntas Generales han dado un paso más para abrirse a la ciudadanía. Por primera vez en la centenaria Institución, los vizcaínos y vizcaínas tendrán una forma sencilla y sistematizada de presentar alegaciones o propuestas a los proyectos de Norma Foral que se tramiten en el Parlamento de Bizkaia. La Cámara vizcaína ha activado desde hoy el “Portal de la Ciudadanía”, una puerta de entrada a las sugerencias ciudadanas que se trasladarán a los impulsores de los proyectos de Norma Foral, o sea a los distintos grupos junteros que podrán incorporarlas en el periodo de enmiendas.

Quien lo desee podrá plasmar próximamente sus ideas legislativas al anunciado proyecto de Norma foral sobre Transparencia o a los Presupuestos Generales de Bizkaia para el año 2016, cuyos trámites parlamentarios se espera se inicien en el mes de octubre. Este paso supone un giro sustancial en la relación entre la ciudadanía y uno de sus poderes legislativos ya que supone ceder al ciudadano la posibilidad de aportar ideas de forma directa en la elaboración de Normas Forales que tienen gran trascendencia social como es el caso de los Presupuestos.

El Parlamento de Bizkaia, en un esfuerzo por aproximar la política a los ciudadanos y ciudadanas, estableció en su nuevo Reglamento –aprobado por unanimidad el pasado mes de marzo en el último pleno de la legislatura anterior- una hoja de ruta que permitirá de manera individual o colectiva proponer modificaciones en las Normas Forales. Esta iniciativa marca un camino de transparencia y participación en el Legislativo vizcaíno con el propósito de que la ciudadanía obtenga de los poderes públicos una respuesta a los problemas que le suscitan interés.

La participación ciudadana en el proyecto de Presupuestos viene regulada por el artículo 115. Al admitirse a trámite un proyecto de Norma Foral, la Mesa “acordará la inserción de un anuncio en la web de las Juntas, poniendo dicho proyecto a disposición de la ciudadanía”. La Cámara abrirá “un plazo de 10 días desde la publicación en el Boletín para la presentación en la secretaría general de alegaciones, bien individuales o a través de asociaciones u organizaciones”. La secretaría general trasladará de forma inmediata las alegaciones presentadas a los grupos junteros.

Esta participación aparece también en el artículo 137. En esta ocasión, se hace una mención específica para el trámite presupuestario. Cuando las cuentas públicas alcancen la fase de estudio, “los ciudadanos y ciudadanas, asociaciones y demás organizaciones sociales” dispondrán también de un plazo de 10 días para presentar alegaciones y propuestas, a cuyo efecto se elaborará un modelo de formulario. Este modelo se encuentra alojado desde hoy en la web institucional ([jjggbizkaia.eus](http://jjggbizkaia.eus)) y -en papel- en la sede administrativa de las Juntas Generales (C/Hurtado de Amezaga, 6).



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Tras dejar sus datos (nombre, dirección, teléfono y correo electrónico), el usuario podrá dirigir cuantas propuestas considere oportunas a los proyectos de Norma Foral que en esos momentos se tramiten en la Cámara. El objetivo de esta plataforma es hacer llegar las opiniones de la ciudadanía a los representantes de Bizkaia con el fin de que puedan influir en las redacciones definitivas de las Normas. La secretaría de la Cámara trasladará las alegaciones y propuestas debidamente clasificadas a los grupos junteros y dará cuenta de ellas a la Mesa.